

2017.07.10
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 42. bilerako AKTA
A.G., K.F., X.I., I.A.

Gaiak:

1. Frontoiaren irisgarritasuna

- Parte-hartze prozesurako lau aukera ematea erabaki da oraingoan: atzekaldetik sarrera ireki, aurrekaldean plazatik arrapala eta betelana. Azken kasu honetan, bi modu izan ditzake, azpikoa erabilgarria egindsa hala barrubetea izatea
- Lanak egiteko laguntza azkenean aurrekontuaren erdia izango da eta 162.000 € arte iritsi daiteke. Beste eskaeraren bat ere egingo da.

2. Ur hornidura:

- Baserrietako ur-horniduraren azterketan aukera bat aztertzea erabaki da, Mendibilko biltegitik gora bonbeatu eta bi dbiltegi berri eraiki 200 m-ko altuera mailan. Aldundiko teknikariek aholkatu diguten injeniaritari esleituko zaio aurreproiektua (Harreman Injeniaritzako Igor Urrutia).

3. Natura eta Ingurumena

- Arbelen industria aztarnak aztertu eta balioan jartzeko programan irteera eta hitzaldia egin dira. Aurrerantzean ere antolatuko dira.
- Aurten lursailak erosteko iritsi zaizkigun eskaintza gehienei erantzun positiboa emateko aukera izango dugu.

4. Herri bideak:

- Herri bideen inbentarioaren aurkezpena SENDOko teknikariek egin ziguten.

5. Urkiko elkarte/aterpea

- Urkiko elkarteari aterpearen araudi proposamen bat helarazi zaio, aztertu eta eztabaidatzeko.

6. Beste batzuk:

- Sasn Juango errepidea aurki irekiko dute,
- Arama eta Zaldibiko Udalekin batera autobidetik Itsasndoruntz (ere) dagoen irteera aztertzen ari gara, duen arrisku nabarmena ahal den neurrian gutxitzeko asmoz.